

berriak Triforio-tik




araba
álava

ADI: Koronabirusaren krisiak sortu duen egoera dela eta, Berriak Triforiotik argitalpenaren zenbaki hau formatu digitaletan baino ez da banatuko. Ez da inprimatutako bertsiorik egingo. Barkamena eskatzen dizuegu horrek eragin ditzakeen eragozpenengatik eta gure informazio buletinaren ohiko banaketa ahalik eta azkarren berreskuratzeko itxaropena adierazi behar dizuegu.

Katedralaren dorrea, XIX. Mendeko kolera izurritearen biktima

Hamar mende baino gehiagoz, Santa Maria Katedrala Gasteizko gizartearen bizitza markatu duten gertakarien lekuko izan da, une honetan gertatzen den bezala.



Izan ere, gertakari horietako batek baino gehiagok eragin zuzena izan zuen tenpluan, 1856ko urtarrilaren 20an dorreak jasan zuen sutearen kasuan, besteak beste. Sutea, Gasteizen kolera izurritearen amaiera ospatzeko jaurtitako suziri baten ondorioz piztu zen.

XIX. mendearen erdialdeko epidemiak –Gasteiz suntsitu zuten hiru izurriteetatik hilgarriena– biztanleriaren %8,5ari eragin zion, eta 3.000 pertsona hil zituen, Pedro M. Ramos historialariaren datuen arabera. Gaixotasuna Bartzelonako portuan hasi zen, eta handik oso azkar zabaldut zen, Ebro ibaiaren goiko ibilbideari jarraituz.

Hirian eragina handia izan zuen, eta, horregatik, hainbat ekitaldi antolatu ziren izurritearen amaiera ospatzeko. José Cola y Goiti historialariak "La Ciudad de Vitoria" lanean dioenez, 1856ko urtarrilaren 20an, "aurreko urtean hiria hartu zuen kolera izurritearen amaierarengatik eskerrak emateko egin zen Te-Deum izenekoaren ospakizunetan jaurtitako suziri batek XVII. mendean eraikitako Santa Maria elizaren dorrea erre zuen. Hiru egun behar izan ziren sutea itzaltzeko".

Ondorioz, kapitela berreraiki behar izan zen, eta zenbait aldaketa sartu ziren, San Pedrokoaren oso antzekoa zen eta Liburutegi Nazionalean gordetzen den XIX. mendeko Gasteizko ikuspegiaren behin betiko geratu den (ikus erantsitako panoramika) jatorrizko egiturekin alderatuz. Barruko estrukturan azken diseinua, gaur egunera iritsi dena, informazio honen marrazkiari dagokio.



Eragina Ondarean

Dorreak jasandako sutearen ondorioz 1856ko kolera epidemiak katedralaren egitura aldaketak "eragin" zituen bezala, Gasteizko ondare arkitektonikoak aurretik ere jasan zuen pandemien aurkako borrokaekin erlazionatutako erabakien eragina. XVI. mendearen amaieran, aire ustela izurri beltzaren elementu hedatzaile hartzen zen. Horregatik, Errementari, Zapatari eta Hedegile kaleetako sarbideak babesten zituzten arkuak eta dorreak eraisteko agindua eman zen, espazio horiek hobeto aireztatzeko, horrela kolerratik libre geratuko zirelakoan. Hala ere, erabaki gogor haiek ezin izan zuten gaixotasuna hirian sartzea ekidin.



Ibilbide birtualak, konfinamenduaren aurreko aukera


Fundazioaren www.catedralvitoria.eus webguneak Katedrala etxetik irten gabe bisitatzeko aukera ematen du, "Ibilbide Birtuala" tresnari esker. Bereizmen handiko argazkien behaketa soilak baino askoz gehiago ematen duen esperientzia murgiltzailea da, denboran zehar ia 20 urtez bidaiatzeko aukera ematen baitu, 2001ean tenplua berreskuratzeko lanak hasi aurreko garaia. Une horretatik aurrera, proiektuaren arduradunek aldi-aldi argazki panoramikoak eta esferikoak egin dituzte, eta plataformaren artxiboan sartu dira, kontsultatu ahal

izateko eta ondarea birgaitzeko proiektu honen ikus-gordailu osoa sortzeko.

Ibilbide birtualerako sarbidea helbide honen bitartez egin daiteke zuzenean: <http://vr360.catedralvitoria.eus/>. Behin barruan, bisitari birtualak katedralaren barrualdeko hainbat ikuspegi aukeratu ahal izango ditu, eta zaharberritzean egin diren etapetan eraikinak izan duen bilakaera ikusi ahal izango du. Esperientzia are ikusgarriagoa egiteko, urte desberdinetan leku beretik egindako panoramikak sinkronizatu dira, eta, beraz, egungo ikuspegitik kontsultatu nahi den urtera joateko aukera ematen du.



Xehetasuna



"Vitoria-Gasteizen jatorria" bideoa 44.000 pertsonak baino gehiagok ikusi dute dagoeneko, iaz Fundazioaren Youtubeko kanalean jarri zenetik. Konfinamendu aldi honetan, gainera, Fundazioaren webgunearen erabiltzaileek gehien erabili duten elementuetako bat bilakatu da.

"Katedrala zure leihotik" argazki erronka

Osasun-larrialdiak eragindako konfinamendua pixka bat arintzeko asmoz, Santa Maria Katedrala Fundazioak "katedrala zure leihotik" argazki-erronka jarri du martxan. Ekimen parte-hartzaile honen helburua elkarlanean sortutako argazki handi bat lortzea da, parte-hartzaile guztien ekarpenekin egindakoa, katedralak hiriko bizitzan duen presentzia islatuz. Horrela, ez da beharrezkoa katedral osoa hautematea, ezta argazkian katedralak erabateko garrantzia izatea ere, baina beharrezkoa da katedralaren zatiren bat agertzea edo ikusi ahal izatea.

Argazkiak posta elektronikoz bidali behar dira comunicacion@catedralvitoria.eus helbidera, Fundazioak balaratu ditzan. Baldintzak betetzen badituzte, proiektuaren parte izango dira, eta egileek katedralera bisita gidatua egiteko doako pasea jasoko dute, baldintzek horretarako aukera ematen dutenean.

In Memoriam



Jaime Castañón, Toledoko katedralako arkitekto kontserbatzailea. Apirilaren erdialdean Jaime Castañón, Toledoko Katedralako arkitektoa eta Santa Maria Katedrala Fundazioaren lagun mina, hil zen. 76 urte zituen eta 1985az geroztik ari zen lanean Gaztela-Mantxako hiriburuko tenplu primatuan. Gasteiztik doluminak bidali nahi ditugu bere heriotzarengatik.

